

# Erljioak elkarren bila?

*En términos históricos puede decirse que las relaciones entre las religiones, particularmente cuando éstas han tenido un carácter institucional y político, han sido azarosas e incluso sangrientas. Recuérdense las guerras político-religiosas del Islam y las Cruzadas cristianas contra el mismo; tampoco pueden olvidarse fácilmente los enfrentamientos civiles y armados de chiitas y suníes, de protestantes y católicos, de hindúes y musulmanes. No obstante, esa misma historia está llena de ejemplos sociales válidos de tolerancia y convivencia. Recordemos algo de esa historia.*

Erljioen arteko harremana ezinikusiz, mespretxu eta gorrotoz ere bizi izan da iraganean. Garaien aldarteen araberako iragana da Erljioen harremanen hau. Baina Europan, Penintsula Iberiarrean eta Euskal Herrian kristauak, juduak eta islamiarrak elkarrekin bakean bizi ahal izan ziren, lege bidez elkarren arteko bizitza arautu eta segurtaturik, baina bestelako trantze zitalagoak ere ezagutu zituzten harreman haiek.

## Historiari begiratutxo bat

Gaur egungo harreman planetariora iritsi aurretik, Erljioen harremanek egoera oso ezberdinak eza-gutu dituzte.

1) Lehenengo batean, eskualdeka bizi izan-dako harremanak egon dira, Antzinatean eta Erdi Aroan. Ondoko kasuak izan daitezke lurraldez lurralde harremanen plaza historiko nagusiak: India / Txina, Ekialde Hurbila / Europa, Grezia / Erroma, Erromaren Mediterraneo, Arabia / Maghreb / Mendebaldea, etab.

Kristauak gizarte islamiarrean bizitzeko auke-ra historikoa izan dute, betiere baldintza berezietan. Musulmanentzat zailagoa izan da Erreinu kristauek estatus eramangarri batekin iraunkorki bizi ahal izatea, eta garaian garaiko interes politikoen arabera, *jihad* gerrazalearen eta Gurutzada kristauen ideologia buruberoek beren triskantzak ekarri zituzten.


Juduen kasua bestelakoa da. Antzinatek, beste bi Liburu-Erljioetako sinestunen artean bizi izan dira juduak, batzuetan bake-bakean, bestetan jazarpen gogorren artean. Alde batetik, ghettoetan bizi behar izan zuten, eta historia handi baten ondoren, Europako beren sorterrietatik egotziak izan ziren. Iraultza Frantsesarekin eskuratu zuten Mendebaldean herritartasun oso eta librea.

2) Geroago, batez ere XVI. mendetik hona Aurkikunde eta Kolonizazio-aroa dator, mundua bereganatzeko Europa aurreratu zeneko garaia (1492...). Lehendabizi, Gaztela eta Portugal kristauak heldu ziren Amerika eta Indiara, bi kasuetan bi emaitza ezberdinekin (Portugalek ez zuen India kristautu, baina Brasilen horretarako baldintzak jarri zituen).

Amerika hispaniarrean bertako erljioekin ez zen egon apenas elkarriketa leialik, eta kristautzea izan zen lege. Gogora Aita Landa-ren bikoiztasun bitxia: maien oroigarri eta eskuizkribu jentilak sutara bota zituen (1562), eta gero kultura haren kronikaririk onenetakoa izan zen bera (*Relación de las cosas de Yucatán*, c. 1566).

Orduan eta geroko kolonialismoan Euro-parrek proiektu kolonialaren barruan kristautze-lanari egin zioten leku, lurralde kristau berriak sortzeraino, batez ere Amerika, Afrika eta Ozeanian; bien bitartean, Txina eta India izan ziren horren





Frai Diego Landaren  
«Relación de las cosas  
de Yucatán» liburuan  
agertzen den  
Yucatango mapa

aurkako erresistentzia erlijiosoaren kasurik nabarrienak. Aro kolonialetako jarrera eta jokabideek, gutxi-asko eta nabardura ezberdinekin, Munduko II. Gerrara arte iraun zuten (1939-1945).

3) Gerra horren ondoren, hogeita bost urtetan guztiz aldatu zen munduko mapa politikoa, deskolonizazioaren ondorioz (1946-1970), eta Erlijio Erakundeek ere egoera berrira moldatu behar izan zuten: azken buruan, Kolonialismoak eta Kristandadeak beren autokritika egin zuten, gainerako Erlijioei zegozkienetan. Horregatik, Vatikanoko II.a aukera aparta suertatu zen kristautasunetik harremanetarako irizpide eta norabide berriak lantzeko (1962-1965).

### Kontzilioa eta erlijioarteko harremanak

Jarrera-aldakuntza hori ez zen eztabaidarik gabe gertatu, ezta Kontzilio ondoren orduan onartutako testuekiko interpretazio kontrajarririk gabe. Hala ere, harreman horien historian Vatikanoko II.a mugarririk garbia da, alor honetan orduan esan zenagatik eta gero garatu diren pentsamendu eta burubideengatik.

Vatikanoko II.aren lehenengo aldiz, espresuki, ofizialtasunik altuenarekin, eta adeitasunez begiratu zituen Eliza Katolikoak kristau ez diren beste erlijioak, beste erlijioetako sinestunek milaka urtetan erakutsi duten erlijiotasuna goraki aitortuz. Aurreko mendeetan Kristandadeak aditzera eman zituen haiekiko erabateko gutxiespenei eta abui-oei nolabaiteko mugak jarri.

Kontzilioak bere testuetan hitzez hitz ez zituen jarri erlijio guztiak maila berean, denek balio bera emanaz; baina garbiki azpimarratu zuen berorietan aurki zitezkeela baliozko ekarpen erlijiosorik. Alde horretatik, kristau jarrera aldatu ageri da azken Kontzilioak esandakoetan, eta ez du

gutxi lagundu horrek ondoko pentsamendu teologikoaren berritzean (Erlijioen Teologia Kristaua). Erromako Batzordeek ere beren lana egin dute, nahiz eta ez den guztia aurrera-pauso izan.

Kontzilioak agiri ezberdinetan hartu zuen aintzakotzat Erlijio ez-kristauekiko balorazio eta harremanen kontu hau. Kontzilio osoko agiririk oinarritzkoenean, Eliza definitzeko eman zen *Lumen Gentium* hartan (1964), juduak eta musulmanak aipatu ondoren zera dio: "Jainkoa ez dago urrun, itzal eta irudi artean Jainko ezezagunaren bila ari direnengandik ere (...), Salbatzaileak gizaki guztiak salba daitezela nahi baitu" (16. zenb.).

*Nostra aetate* Adierazpena izan zen Erlijio ez-kristauei zuzenago begiratu ziena (1965), aurretik Paulo VI.aren elkarrizketarako deiaren ildo berean aurrera eginez (*Ecclesiam suam*, 1964: 40-41. zenb.); era bertsuan, baina bestelako ikuspuntu batetik, Misioei buruzko dekretuak ere bere argibide teologikoak eman zituen (*Ad Gentes divinitus*, 1965). Munduaz diharduela, nabarmengarria da ondoko esaldiak ispatzen duen Erlijioekiko sentiera: "Edozein Erlijiotako sinestunek entzun izan dituzte beti Jainkoaren ahotsa eta adierazpenak kreaturen hizkuntzan" (*Gaudium et Spes*, 36. zenb.).

Gaurko Erlijioen munduari begira ez ezik milioika urteko Historiaurre aberatsari arreta jarrita, Gizadiaren Jainkoaganainoko ibilera kezkatu eta bilatzaileari estimu handiz so egiten diote Kontzilioko testuek, erlijiotasun haiek ere salbamenerako misterioaren parte direlako (*Nostra aetate*, 2; *Ad gentes divinitus*, 10).

Espero daiteke elkarrizketa izango dela, inoiz baino areago, etorkizuneko erlijiotasunaren garrantzia.

**Joseba Intxausti**